

Euskal liburuaren penak eta pozak

Penak, gaurkoak. Pozak, agian, biharkoak

Joan Mari Torrealdai

Euskal kultur-festen urte-sasoian gaude. Tarteko aldi batean bezala. Uda-partean festa-giroak agintzen du: lan-oporrak, herriko jaiak. Gutxi berru beste giro bat nagusituko da, urte osoan iraungo duena, urteko lana, ika-surtea, eta abar. Bitarte honetan, bietatik bizi gara: festa giroak oraindik jarraitzen du, modu serioagoan eta "kulturalagoan" bada ere. Orain da musika-kontzertuen sasoia, zinemaldia, eta abar. "Fiestas Euskaras" edo "Iraileko Jaiak" direlakoak ere orain ospatu dira Donostian. Jai horien barruan, egitarauak dioenez, liburuaren azokarik ere bazen. Astebete atzeratu zen eta ikasurtearen ataririk bertatik, beraz, liburuak kalean. Bai, hori eta gehiago beharko du euskal liburuak burua jasotzea nahi bada. Azken puntu honi helduko diogu.

Makina bat artikulu idatzi izan da euskal liburuaren plazaratzearen alde. Kaleratze horretantxe ikusten bait genuen, sinbolo mailan ikusi ere, euskal liburugintzaren "normaltzearen" seinale. Egia esan, euskal liburua debekatua eta persegitua izatetik kaleko erakustokietan ikustera bada ezinukatzeko alderik. Baina nondik gatozen ez baino nora joan behar dugun kontutan hartzen dugunean, nekez izan gaitezke baikor.

Ez, noski, lehen baino objektiboki okerrago gaudelako. Bai, oster, errealitatearen datuak arestian baino hotzago eta esanguratsuago ikusten bide ditugulako. Badirudi euskal liburuaren etsaiak indar berriz agertzen zaizkigula orain. Hiruzpalau aipatuko ditugu.

Horieta bat, erdal liburua da, are gehiago euskal gaietaz ari

denean. Beste bat, kaleko giroa, politika borrokak jendearen ardurak sakabanatu egin ditu eta hein batetan kultur-alorretik aldentu. Euskal liburuak (berdin prentsak) gerakuntza jasan du, horregatik. Kontuan eduki behar da, gainera, 60 urtetan euskal kulturara sartu zen belaunaldi gaztearentzat, politika borrokaren parte garrantziko bat, gaur ez bezala, kulturarik igaro ohi zela. Hirugarren oztopoa, krisi ekonomikoa da, beronen lehen biktimetarik bat liburua bait da, are gehiago euskal liburua, "beharrezko" ez denez. Laugarren eragozpena, kultur eremuko norabide berrietatik etor dakioko liburuari. Puntu honetantxe luzatuko naiz gehixeago, telebistaren kasua aipatuz.

Euskal Herriarentzat eta gure kulturarentzat neurtu-ezineko mesedea izango da euskal telebistaren lortzea. Zalantzarik gabe, telebistarekin urte askotako lan isilak eta gutiengo baten sakrifizio gaitzak Euskal Herriaren tamainako hedadura har dezakete. Gure herria euskalduntzeko arma paregabea da telebista. Eta horregatik da hain munta handikoa. Baina beldur naiz ez ote duten ikusentzun komunikabideek dinamika eta ardura (eta diru) guztia bereztat eramango. Euskal liburuaren eta euskal aldizkarien aurka printzipio egongo denik nekez aurkituko dugu. Baina praxian orain artean bezalatsu ez ote dute apal eta bazterturik jarraitu beharko? Gure kulturarentzat arriskutzat jotzen dut "mass mediaen iraultza" "liburuaren iraultza"-rik gabe, euskara "entzun" bakarrik ez baino "irakurri" egin behar bait da. Hórrela bada, telebista bai, liburua ere bai.

Euskal liburuaren azken urteotako eboluzioari eta gaurko egoerari so, gerakuntza bat bezala somatzen dugu. Behin eta berriz erakutsi zaigunez, liburu argitaratuen zerrendak urtean urtean luzatuz doaz. Gerakuntza, baina, beste nonbaitetik datorrela esango nuke. Ez tituluetatik irakurletatik baino. Izan ere, oro har esan genezake tituluak multiplikatu direla baina ez dela tiradarik gehitu, espero zitekeen tamainan bederen.

Nondik datorke euskal liburu-gintzaren sendabidea?

Luze joko luke erremedioen azalpenak. Hitz bitan topikoak errepikatu beste erremediarik ez dugu hemen. Liburuaren pozak has daitezke euskal herria alfabetatzen denean, hots, gure irakurle potentzialak bi mila edo hamar mila ez baino dozenaka mila asko daitezenean. Hori bateko. Eta besteko, gure herri hau kulturadunago bilakatuko denean. Zeren eta gure arazoa ez bait da soilki "euskal" kulturarena, baizik eta "kulturarena" berarena ere bai, kultur maila eskasarena alegia. Luzdrora begira, kultur politikaren bi kondizio hauen pean dago osoki euskal liburuaren etorkizuna.

Bada epe motzera, bestelako sendabideren premiarik ere, Eusko Kontseiluaren laguntza, kasurako. Euskal kultura idatziak behar beharrezkoa du laguntza, subentzio edo dena delako zerbait, dezentzia piska batekin bizitzeko (mantetzeko behintzat). Horretarako, programaketak, plangintzak, plataformak sortu beharko ditugu, kultur politika zehatz bat definitu ondoren. Orduan dateke euskal kulturaren pozaldia.